

SAN JUAN-TXIKI.—Eskuartean I. Linazasoro-ren *La otra Gipúzcoa* liburu apaina, gure probintziako txoko galduak berebiziko onduen arakutzen dituana. Holako liburu asko behar ditugu gure herria izango dan moduan ezagutzeko. Atseginez irakurri dut.

Lazkaoko San Juan ante Portam Latinam-i, ingurukoak samurki deritzen omen diote, «San Juan Txiki». Familiko gisa ote? Eguzkiaren jai nagusietan finkaturik dagoan San Juan Bautistarekin bereiztearren ez ote? Hala esango nuke, zeren Gipuzkoan bada beste San Juan ante Portam Latinam bat, Eskoriatzan, Kurutzebarriren hegian, Bolibar ballarako Ereña hauzoaren gainekaldean, Mendiolatik Degurixara bidean —eta ez Aitzorrotz gainean D. Irigoyenek *Ermitas e iglesias de Guipúzcoa*-n dion bezala (dakus: *Anuario de Eusko-Folklore*, tomo XIV, 40-garren horrialdean, 1934)—, inguru haietan, Lazkaumendiko bezala, «San Juan Txiki» izenez ezagutzen dutena da. Beraz, ez dala hain harrigarria esango nuke. Izen horrek bere zergaitia du. Bi ezagunok lekuko.

Lazkaoko «San Juan Txiki»-ren imajiña (liburuaren 162-gn. horrialdean) erromanikotzat jotzen du, bere arpegian, eskuetan eta tunikan gotiku joera argi eta garbi salatzen duelarik ere. Transiziokoa dirudi, gotikura aski sartuago. Eibarko San Pedro-rekin egiten duen konparazioak eztu batere baliorik. Biak ezagutzen dituanarentzat oso desberdiñak dira. Eibarkoak oinetatik bururaino hain bereizgarri duen simetria falta zaio.

J. S. M.